

BERRIGARA

63. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1992, maiatzak 8




KRUZ JAUREGI
futboleko langilea



Udaberriko
kontzertua
igandean zortzi



Lokatza 92
taldeen
aurkezpena



Mongatxurra
futbitoko ligako
txapeldun




KIÑU

ARGAZKI ETA BIDEOA

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 58 05

GRUPO
Image
Center



Barrenkale, 3. BERGARA. telf.: 943-765919

Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza



ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Iosu Gantxegi

Aurreko GALDE DEBALDEko galdera hirukoitzaren erantzun zuzena hau zen: **Alfonso X.a Jakintsuak, 1.268an, eta izena "Villa Nueva de Vergara". Iosuk irabazi du Askasibar Jatetxekoko SARIA.**

Iosu ume prodigioa suertatu omen zaigu,
edota familiakoek argazkian irtetzerik nahi ez?
ZORINAK!!

Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77



Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jauriaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Eudrene Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta eritzien erantzunkizunik.



Eta etxekoak zer moduz? izango da larunbatean Zabalotegipeko antzokian ikusi ahal izango den antzerki-lana. Taupada antzerki taldeak, komikietako laukia osatzen duten lau marrak alde batera bota, eta umorez, antzeslan orijinala aurkezten digute eskenategian. Beraien etxean sartzeko aukera. Larunbatean, 22.30etan.

OSTIRALA 8

• Erakusketa:

- Ascensio Esnaolaren oleo erakusketa Kultur Etxean.

• Kontzertua:

- *John Holmes Underground*, Gaztetxean 10etan.

LARUNBATA 9

• Pelota:

- Retegi III.-Urra/Satrustegi-Santi, Bergara II.-Maiz II./salaberria-Errasti eta Gabilondo-Asatarloa/Telletxea-Garaita, 16.30etan.

• Bideoa:

- *Isidoro katua*, Kultur Etxean 11etan.

• Kontzertua:

- *Kalandosa Koulos* eta *Skunk*, gaueko 11etan Gaztetxean.

• Erakusketa:

- Narraztien erakusketa Seminarioan asteartera arte.

IGANDEA 10

• Pala:

- Pala txapelketaren 5. ihardunaldia goizeko 9etan Osintxun.

FARMAZIAK



9 Guallar
10 Guallar
11 Estella
12 Mozos
13 Camacho
14 Mozos
15 Puy
16 Guallar

ZINEA



Querido intruso

• OSTEGUNA: 19.30.

Bugsy

• OSTIRALA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
• IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
• ASTELEHENA: 19.30.

Amo tu cama rica

• LARUNBATA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.

Suburban comando

• IGANDEA: 11.30.

OGIA



Konde Panad.

ETXE PARE - BILINTX LIBURUBANDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



S.O.S.

Euskal preso politikoen senideak, lerro hauen bidez, Salto Del Negro izeneko gartzelan 13 euskal preso politikoei eta tartean Bergarako Xabier Oregi "Panti" jasaten ari diren egoera larriaren berri adieraztea nahi dizuegu.

Aurtengo martxoan, 42 egun gose greban igaro ondoren, gartzelako zuzendariak hitza eman zuen bizitza duin baterako eskatzen zituzten gutxiengo beharrak errespetatuko zituela.

Aurtengo lehenengo gose greba bukatu eta 40 egunetara, presoek ikusten dute zuzendariak bere hitza ez duela bete, eta aipatutako gose greba hau hasi baino lehenago zituzten bizibaldintzak gogortu egin direla.

Labur esateko:

- Astean 10 minutuko bisita bat (kontuan izan kanariar irletan zokoratuak daudela).

- Gauero, katxeoak eta errekuentok (loa hartu ezin dutelarik).

- Egun osoa zeldetan isolatuta, patiora ateratzen dituzten 10 minutuak izan ezik, eta orduan ere bakarrik.

Zerrenda luzeagoa ere egin dezakegu baina uste dugu puntu hauek nahiko adierazgarriak direla, gure senitartekoen eskakizunen bidez kotasuna ikusteko.

Hau dela eta, pertsonen dagokien bizitza duina izateko, behar diren gutxiengo baldintzak betetzen ez direla ikusirik, eta beste biderik geratzen ez zaiela jabeturik berriro ere beste gose greba bat egitea erabaki dute.

Egoera honetan apirilaren 24etik, 15 egun daramatzate gose greban.

Guzti hau kontutan izanik ez dago esan beharrik beraien osasunak izan ditzakeen konpon ezineko kalteak izugarriak direla. Une honetan, gure kexarik larriena da pasatzen den egun bakoitzak ondorio txarragoak dakarziela eta txarragoak esaten dugunean heriotza dugu begibistan.

Aipatutakoagatik, egoera larri honi bidezkoa den irtenbidea emateko, antolatuko diren ekintzetan zuen ezinbesteko laguntza espero eta behar dugu.

Bergarako Senideak**Zorionak**

Zorionak eman nahi notseke Altos Hornos eta San Prudentzioko jaixak antolatzen ibili diran danei bi gauzagatik. Alde batetik, auzoetako jaixak hain

larri dabizten denbora honetan halako jai ederrak antolatu dittuelako eta bigarrenik programa guztiak euskaraz ataratzearren. Ia beste auzo batzuta-koak be bidia ikasten daberen tristia da ta Bergara baten auzuetako programak be erdaraz eta euskaraz agertzea, jakinda bixetan dagoenian erdaraz irakurtzen dala. Eta, gainera, zer? euskaraz egotearren jende gutxiago juaten dala uste dozue, ala.

Estepan Plazaola**Oker baten zuzenketa**

Aurreko aleko Maiatzaren Lehenari buruzko erreportaiaren maketazio oker bat izan genuen: J. L. Aranzeta ELA sindikatuaren izenean egindako adierazpenen orde J.M. Aristegik LABen izenean egindakoak jarri genituen eta alderantziz.

Sindikatu etako ordezkari ei eta baita irakurleei ere gure barkamenak eskatzen diegu oker honengatik.

Berrigara**Tiira ba!****Josu Okina**

□ Bakea

Bergarako Artziprestaldeko Kristau Elkar-teak Baketzea gure herrian izenburuko ihardunaldiak antolatatu ditu. Asteartean mahai-ingurua izango da eta astezken eta ostegunean Patxi Meabe eta Jose Antonio Pagolak hitzaldi bana eskeiniko dute. Ekitaldi guztiak (ostiralean Seminarioan egingo den bakearen aldeko otoitzaldia izan ezik) UNEDen izango dira arratsaldeko 8etan.

□ Lanbide Eskola

Lanbide Hezkuntza Eskolako Aretoan bilera bat izango da datorren asteartean, hilak 12, arratsaldeko 7etan, 8. mailako ikasleen gurasoekin. Bilera honen helburua gurasoei ikastetxe honek duen heziketa eskeintza ematea litzateke.

Musika Eskolaren Udaberriko kontzertua, maiatzaren 17an

Ostegunean aurkeztu zen Musika Eskolan Udaberriko kontzertuaren aurtengo edizioa. Maiatzaren 17an ospatuko den 4. edizio honetan, ohizkoa denez, Musika Eskolako taldeek frontoian eskeiniko duten kontzertua izango da ekitaldi nagusia. Goizean Gazteen Bandak burutuko duen kalejiraren ondoren, Gazteen Banda berak, Tipleen Abesbatzak, Soinu Orkestak eta, azkenik, Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango dute eguadiako 12etatik aurrera. Talde guzti hauek, besteak beste, Mozart, Guridi, Rossini, Weber, J. Busto edota Paul Mc Cartneyren piezak eskeiniko dituzte, kontzertu ostean poteo musikala izango delarik herriko kaleetan zehar.

**Bazkari herrikoia**

Ondorengo bazkaria, aurreko edizioetan bezala, Espoioan izango da. Bazkarirako txartelak nagusientzat 1.800 pta. eta gaztetxoentzat 800 pta. tan jarriko dira salgai eta, bazkarirako txartela erosiz gero, kontzertua

dohain ikusteko aukera dago. Aldiz, gainontzeko jendeak 300 pta. ordaindu beharko du kontzertuagatik. Bazkalostean, dantzaldia izango da Ibaiak taldearekin. Antolatzaileek azaldu dutenez, Musika Eskola eta Udalaren asmoa aurrekontua kontzertuko sarrerarekin betetzea da.

Ordutegi berria

Gobernu Batzordean harturiko erabakiaren arabera, taberna eta jatetxeek ondoko ordutegia bete beharko dute hemendik aurrera: "taberna bereziak" deiturikoak astegunetan goizeko 2.30etarako itxi beharko dute eta 3.30etan ostiral, larunbat eta jai-egun bezperatan. Taberna-kafetegiek, 1.30etan aste barruan eta ordubete beranduago gainontzekoetan. Eta azkenik, jatetxeek, ordubietan astegunetan eta bestelakoetan 3rak arte zabal dezakete. Ekain, uztail, Aste Santu eta Gabonetan, berriz, ordu erdi beranduago guztiak.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

□ **Baltsa jeitsiera**

Azken urteotako ohiturari eutsiz, *Eguzki* talde ekolojistikak *Deba ibaiko IV. Baltsa jeitsiera* antolatuko du jaietan, ekainaren 9an ospatuko den kuadrilen egunean. Ibilbidea Algodonerako zubitik Bide-berriraino izango da eta animatzen joan zaitezten, esan aurten-go sariak honako hauek izango direla: 25.000 pta. lehenengo heltzen denarentzat eta beste 20.000 pta. baltsa orijinalenari.

□ **Txertaketa**

Datorren asteartean, *amorruren aurkako txakur txertaketa* egingo da Elgetako hiltegian arratsaldeko 5 t'erdietatik 7.15ak bitartean. Txertaketaren prezioa 2.000 pta.koa izango da. Aurretik amorruren kontra txertoa hartu duten txakurren txertaketa-txartela eramane beharko da astelehenean.



Senideaken salaketa

Ostegun eguardian Kultur Etxean emandako prentsurrekoan, *Senideak*, euskal presoekin familiarren elkarteak, gogor salatu zuen Kanarietako Salto del negro espetxean dauden euskal presoekin jasaten duten egoera. Orain hilabete inguru zenbait promesa egin bazizkieten, prentsurrean jakitera eman zutenenez, "onera joan beharrean, txarrera egin du hango situazioak eta handa dauden 14 presoetatik 13k gose greban daude".

Era berean, *Senideak*-koek EAJ, EA eta HB al-

derdiekin elkarlanean aritzeko izan dituzten elkarrizketen balorazioa egin zuten. Beren esanetan, "EAJk erantzun aritu gaituzten ere, EAren jarrera izan da benetan arritu gaituztena; guztiz lotsagarria izan da, batez ere emandako tratuegatik. HB, berriz, gurekin kolaboratzeko prest azaldu da". Azkenik, *Senideak*ek dei egin zuen egunero, 12etatik 2etara, eta arratsaldean, 7etatik 9etara, San Martin Plazan presoekin alde egingo dituzten enkarteladetan parte hartzeko.

□ **Esnaola**

Ascensio Esnaola margolari bergarraren erakusketaren inauguraketa izan da gaur ostirala Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Esnaolak Bergara eta Debako hainbat toki ezagun eskeintzen dizkigu erliebeko 11 oleotan. Erakusketa maiatzaren 18ra arte egongo da ikusgai, aste barruan 6etatik 9etara eta aste bukaeran 12etatik 2etara eta 6etatik 9etara.

□ **Hamabostaldia**

Datorren igandean, maiatzak 17, amaituko da Elgetan burutzen ari den *Hamabostaldi Kulturala*. Ordurarte antzerkia izango da larunbatean arratsaldeko 7etan, jubilazioari buruzko hitzaldia asteartean 7etan ere, landareen gaineko hitzaldi-elkarrizketa ostegunean, ipuin ordua larunbatean eta, bukatzeko, herri jaialdia larunbatean.

Euskalduna Taberna
OSINTXU

ELEKTRO
ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak, automatismoak, e.a.
San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

TOKI-EDER Taberna
Pintxoak eta eguneko bazkariak
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

P. MANSO
Optika
OPTIKOA, OPTOMETRISTA
Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

KONDE PANADEROKUA

Burdinate 1, Tfnoa: 76 02 57



Brusa lehiaketa jaietan

JARDUN Elkarteak Brusa lehiaketa antolatu du jaietarako. Lehiaketa honetan parte hartzen duten kuadrila ezberdinek, jaietako brusa bat, kuadrilaren argazki dotorea eta esaldi bat euskaraz aurkeztu beharko dituzte. Argazkia, koloretan, 18x24 zm.koa izan beharko da eta esaldia, jaien inguruan, gehienez hiru lerrotako mezua. Bi talde egongo dira; 14 urte artekoak lehendabizikoa eta hortik gorakoentzat bigarrena.

Epai-mahaia brusa diseinua, esaldia-

ren bizitasuna eta hizkuntza zuzentasuna eta argazkiaren orijinaltuna ere izango ditu kontutan. Sarietarako, lehenengo taldean 1. go saria 15.000 pta.koa izango da, 12.000 pta. jasoko ditu bigarrenak eta 10.000 hirugarrenak. Bigarren taldean, berriz, 30.000, 20.000 eta 15.000 pta.ko sariak prestatu dira. Izena emateko azken eguna maiatzaren 29a izango da eta kuadrilen egunean, ekainaren 5ean, lehiaketaren erakusketa ikusgai egongo da Simon Arrietan.

Txinpartak

✓ **"Isidoro katua"** bideoa iragarri da larunbaterako, hilak 9, goizeko 11etan Kultur Etxean, JARDUNek haurrentzat antolatutako bideo emaldien barne.

✓ **Sierra Salvada**, "Tologorrira", egun gutxirako irteera iragarri dute maiatzaren 17rako Gorla Alpino eta Pol-Pol Mendizale Taldeak.

✓ **Antonio Arrillaga** bergarar margolariaren erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan maiatzaren 31ra arte.

✓ **Euskadiko III. Kirol Eskalada** txapelketaren antolaketan kolaboratu nahi dutenen bilerak izango da Pol-Polen asteazkenean 7etan.

✓ **Pol-Pol Mendizale** taldearen 50. urterena ospatzeko Himalaiara egingo den espedizioaren kamisetak salgai daude elkartean bertan.

✓ **Ane Miren Alberdi** angiozartarra atxilotu zuten astelehenean Parisen Polizia frantsesak ETaren aurka egindako operazioaren barne.

✓ **Pol-Pol Argazki Taldeak** konbokatutako "Bergara Hiria" VIII. Argazki Lehiaketarako lanak aurkezteko epea maiatzaren 22an bukatzen da.

✓ **BOTA** talde antimilitaristak maiatzaren 15ean ospatzen den Nazioarteko Kontzientzi Eragozpen Egunaren inguruan bideoak, hitzaldiak... eta beste hainbat ekitaldi iragarri ditu.

LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

ORTZI Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Gutxi dira herriko futbolaren alde Kruz Jauregik egin duen adina lan egindakoak. 25 bat urte zituenean Horkonpon taldean hasi zen eta bizpahiru urte geroago Bergara Kirol Elkartearen sortu zenetik, orain dela bi urte utzi zuen arte, buru-belarri aritu da elkartearen alde lanean. B.K.E.ak bere historia guztian bizi izan dituen urterik oparoenak eta baita makalapak ere, gertu-gertutik ezagutu ditu.



Kruz Jauregirekin berriketan:

"Futboleant denetarik egitea tokatu zait"

Bizitzako urterik gehienak Bergaran pasa baditu ere, jaiotzez urretxuarra da. "Jendeak Zumarraga antigualagoa dela esaten du, baina Urretxu zaharragoa da", esan digu harrotasun haundiz. Baina ama Bergarakoa zuen, Agirrebeña ostatukoa, eta zazpi urte zituenean bere osaba-izebekin bizitzera etorri zen. Antzuolako Beteixon igaro zituen lehenengo hiru urteak eta hamar egin zituenean Bergarara etorri zen: "osaba-izebek familiarik ez zuten, eurekin bizitzera etorri nintzen eta lanean berehala ekin nintzen. Goizko seiretan zestua hartu

eta gaueko hamarrak arte, tabakoa, alpargatak..., denetarik partitzen ibiltzen nintzen Altos Hornos fabrika eta baita kalean ere"

Handik lasterrera Altos Hornosen errekadista hasi zen lanean: "Eusebio Amosarrain Zerrajerako pertsonal-buru zen eta oso etxekoa genuenez ofizianako errekadista izateko hartu ninduen. Horrela jardun nuen urte batzuk bizikleta hartu eta batetik bestera korreoa eramaten. Baina dirurik ez zuen ematen eta laminazioan hirugarren ereleboa jarri behar zuten laminazioa eskatu nuen; tontoa galanta ni!, lanik gogorrenak egitera laminazioa... 15 urterekin sartu

nintzen han eta 45 eman ditut" adierazi digu.

Kruzek 70 urte beteko ditu ekainean. Bergara Kirol Elkartearen lanean eman dituen 40 urte pasatxoetan, urteak joan urteak etorri jendeak ikusten ez dituen baina hain beharrezkoak diren lanak, izkutuko lan horiek, egitea tokatu zaio.

- *Futboleant jokatzea izan ezik, beste lan guztiak egin dituzu Kruz.*

- Bai horrela da, Presidente eta tesorero lanak kenduta, gainerako guztiak egin ditut: sarrerak saldu, futbol zelaia zaindu, portierietako sareak jarri eta batu, futbol zelaia markatu, boxeoneurketak antolatzen zirenean atea zaintzen ibili, masajeak eman, baita hezurrak sartu ere..., denetarik.

- *Noiz ekin zinen Bergara Kirol Elkartearen lanean?*

- Futboleant 1.949an sartu nintzen. Garai hartan Bergara Kirol Elkartearen sortu barik zegoen eta herriko futbol taldea Or-Konpon zen. Simon Arrieta presidentea oso laguna nuen bazkideei kuotak kobratzeko deitu ninduen, eta horrela hasi nintzen; harrezkero geratu ere egin barik ibili naiz.

- *Non jokatzen ziren partiduak?*

Agorrosinen bertan. 1.949-50eko denboraldian, Simon Arrieta zegoen presidente; 50-51koan, ostera, Eustakio Kalbo ibili zen eta hurrengoan ez zen futbolik izan, Agorrosingoak ez bait zigen zelaia utzi. Or-Konponek zorrak egin zituen aurreko bi urteetan eta zelaiaren jabeak argi esan zigen: "aizue,

"Inoiz izan dugun talderik onena 1.958an lehen aldiz hirugarren mailara igotzea lortu zueneko. Hura zen ekipoa hura"

bi urte itxoiten egotea ederki dago e!; errentan utzi eta bat ere dirurik jaso ez, zer uste duzue ba?... Lehen ere artoa eta baba sartzen nituen bai, eta atzera ere orturako erabiliko dut zelaia, horrela sikiera zuek ematen didazuena baino gehiago hartuko dut eta".

Zorrak ordaintzeko aldageletarako erabiltzen zen etxea eman behar izan zitzaion eta 1.952. urtean, Jose Mari Gallastegi buru zela Bergarako Kirol Elkartea sortu eta Agorrosingo zelaia erosi egin zen.

- B.K.E. sortu zenetik orain dela bi urtera arte elkartean jardun duzu. Berrogei urte inguru eman dituzu lanean eta tarte horretan elkarteak izan dituen talde guztiak ezagutu dituzu. Urterik onenak zeintzuk izan dira?


- Herriko bertako jokalariekin jokatuz izan genuen talderik onena 1.958. urtean lehen aldiz hirugarren mailara igo-tzea lortu zenekoa izan zen. Hura zen ekipoa hura, gol mordua sartu ziren denboraldi haretan. Agirre atxabaltarra izan ezik, beste guztiak bergararrak ziren: Oregi (Trabuko), Egaña anaiak (Pitia eta Luis M.), Linzoain, Sanz, Linazisoro... Hirugarren mailan sei urte egin genituen, baina orduko terzera ez zen gaur egungoa bezalakoa, hura askoz ere gogorragoa zen.

Urte batzuk berandago, Gaztelu, Irizar, Paulito e.a. egon zirenean ere, izugarritzko ekipoa izan genuen. Jubeniletan Espainiako Kopa Txapelketako finala jokatuz izan genuen Barcelona-

ren kontra eta talde berarekin bigarren aldiz hirugarren mailara igo-tzea lortu zen, eta futboleko politto eginda gainera.

- Bergara K.E.n jokatu duten jokalarien artean onena zein izan da zuretako?

- Onena zein izan den esatea ez da samurra, asko egon dira eta. Bakar batzuk aiopatzekotan Irizar oso elegantea zen,



Sabas Igartua bera ere ona izan zen. Trabuko oso konplettoa zen. Gaztelu ona izan arren, batez ere Bergaratik joan zenean egin zuen gorantz.

Jokalaria on asko izan ditugu, aipatu ez ditudan asko.

- Gaur egun futbola jarraitzen duzu?

- Elkartea utzi nuenetik ez dut Bergarako taldea jarraitzen. Telebistatik ikustea gustatzen zait

baina etxean. Reala eta Athleticek elkarren kontra joakutzen dutenean, bata ala besteak irabazi berdin zait. Ondoen jokatzen duenak irabazi dezala gustatzen zait, ez naiz fanatiko horietakoa.

- Lehen mailan dabil-tzan euskal taldeak nola ikusten dituzu?

- Realak izugarritzko denboraldia egin du eta UEFArako sailkatuko da. Athletic eta Osasuna behean dabil-tza baina ez dira jeitsiko, nahiz eta bilbotarrak larri ibiliko diren. Bilbon jokalaria badaude baina Zuzendaritza Batzordean dabil-tzanak ez dira onak, Clemente ez zuten bota behar... Realean, ostera Toschacek agintzen du gaur. Madrilera joan aurretik berak eta Arkonadak agintzen zuten baina nik banekien galestarrak Real Madriden jai zeukala, han ez bait zioten nahi zuena egiten utziko.

F.C. Barcelona - C.D. Bergara

Bergara Kirol Elkartearen lorpenik garrantzitsuenak dira barik Jubenil mailako Espainiako Kopa Txapelketako finala jokatzea izan da. 1.964. urteko ekaina zen eta Barcelonaren kontrako joaneko partidua Bergaran jokatuz izan zen: "goiz guztia futbol zelaia urez bustitzen jardun nuen. Herriko suhiltzaileen laguntzarekin, mangerak hartu eta ura sartu eta sartu ibili nintzen. Txurruka tesorerora bi aldiz etorri zitzaidan futbol zelaira, ea zertan ari nintzen galdezka. Baina nik banekien

arratsalde parterako ur guztia joanda egongo zela, zelai azpian karea baitago eta ura erraz txupatzen duelako. Bestalde, Barcelonari irabazi nahi bagenion zelaia derri-gorrez lokatu beharra zegoen. 2 eta 1 irabazi genion eta Agorrosinen sekula ezagutu ez den jende pilo bildu zen partidua ikustera".

Bueltako partiduan, oster, ezin izan zuten Barcelona gainditi: "nola irabaziko genion ba?, partidua jokatuz izan beharrean Barcelona ikustera joan ginen eta. Goizeko seiretan jeiki eta Tibidavoan barraketan

izan ginen arratsaldeko ordu bietan bazkaltzera joan ginen arte. Partidua, oster, arratsaldeko bostean jokatuz izan zen..., 6 eta 0 galdu genuen".



Barcelonaren aurka Espainiako Kopa Txapelketako finala jokatuz izan den taldea.

BERGARAKO LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

1.992-93 IKASTURTEA

✓ IKASKETA ESKAINTZA

- I.E.E. 1. zikloa
- Batxilergoak:
 - Tekniko Industriala (2 kurtso)
 - Administrarritza eta gestioa (2 kurtso)
- Lanbide Heziketa 2. zikloa
 - Administrarritza (3 kurtso)
 - Elektrizitatea / Elektronika (3 kurtso)
 - Mekanika (3 kurtso)

✓ EKIPAMENDUA

- Zientzia Esperimentaletako gela
- Liburutegia
- Adierazmen artistikorako gela
- Informatika gelak
- Oinarrizko Teknologia gela
- Elektronika Laborategia
- Makina Elektrikoen Laborategia
- Robotika eta Mikroprozesadore tailerra
- Ofimatika gela
- Ikus-entzurgailu gela
- Oinarrizko Makina herramienta gela
- Makina herramienta espezialitatuen gela
- Automatismo gela
- Teknologia Laborategia
- Metrologia eta Kalitate Kontrol gela
- CAD-CAM (marrazketa gela)

✓ AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean

Tfnoa: 76 38 40 eta 76 24 91


Elosuko Santikrutz

Ermita biurtutako Santutxua

Elosuko Elizak 1.663an hasten den Gurutze Santuaren (santutxua- ren) liburu bat dauka. Urte horietan Gotzaitetik ikustaldi bat egitera etorritako Arana eta Maldonado jaunari erakutsi zioten, Gurutze Santuaren Ermita bat bazegoela adieraziz. Urte horretan hasiko zen, beraz, ermita berriaren bizia. Honen eginkizunak betetzeko obra batzuek egingo zituzten, aldareko mahaia santuen erlikiarekin jantzi eta bedeinkatuko zuten, eta meza santua bertan ematen eta beste elizkizun batzuek ospatzen hasiko ziren, 300 urte berandago oraindik "Santutxu" izenarekin "ermita" dena

ezagutzen badugu ere. 1.570an Elosuko diru kontuetan "Santutxuko" eta "Labeagoko zelaian dagoen kutxatxotik" jasotakoak azaltzen dira. Urte haietan, beraz, santutxua zen, ez ermita. Dena dela, lehengo santutxua eta geroko ermita Azkoititik Bergarara zetorren bide ertzian altxia, bide-gurutze batian (horrela Gurutze Santuaren ermita batzuek) bidarien otoitz leku bezala izan zen egina: bertan errezatu eta atsedan pixka bat bere aterpean hartzeko. Gero, astia eta dirua zeukana ondoan dagoen Bentara joango zen.

Ermita egin zuten urte horretan meza emateko arropa bat bakarrik ere



ez zeukan, eta Gurutze Santuaren egunean 3 fanega eta erdi gari eta dirua ere bildu zituzten kanpaia bat egiteko, oraindik gabe baitzegoen. Geroxeago lurreko harlosak eta Elosuko elizatik kendutako erretable zaharra ipini zituzten. Konbentzioko

gudan, prantziarrek zeharo desegin zuten; ormak bakarrik gelditu ziren zutik. Ermitaren lurretan eta bere onerako bi aldiz landatu zituzten haritzak, eta geroago paguak ere bai.

Imanol Sorondo



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



Las Postas
KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)
Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA
(ARABA)

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI


FS

oto sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99


BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara

Espainiako Buelta telebistatik zuzenean jarraitzen duzu?



Luis Goenaga
34 urte, medikua

Ahal izaten dudanean jarraitzen dut. Dena dela irratitik entzutea gehiago gustatzen zait.




Ramoni Aretxaga
65 urte, etxeandrea

Bai. Ziklismoa ez dut bereziki atsegin baina telebistatik ikusten diren paisaiak oso politak dira.



Elena Carricondo
32 urte, langilea

Astebukaeretan parean tokatu ezker bai, baina bestela ez dut jarraitzen.



Jose Mari Albisua
52 urte, langilea

Bai, egunero, lanera joan beharrik ez daukatenean, bazkalostean telebista aurrean jarri eta jarraitzen dut.

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

MUGICA Burdinaki denda

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA



Bakardadea

20 urte. Gainerazko gaztetasuna. Gustoko karrera etxetik kanpo ikasten: ametsa egi bihurtua. Inungo arazorik ez antza, baina usteak askotan ustel. Egunabar loretsu eta argitsuak bai, baina gaua bezain beltz eta hotzak direnak ere ezagutzen dira.

Askotan etxean ikusi ere egiten ez den telebista aurrean ezer egiteko gogorik gabe hasperen sakonetan joaten da eguna. Baina tokia gutxienekoa da, kalean... edonon zaudela ere barnean ezinegonezko hutsune bat somatzen da. Bakardadea. Badirudi bakardadeak "inongoa" bihurtzen zaituela. Ez da babestuko zaituen tenplurik aurkitzen.

Agian beste pertsona baten beharra da hutsune horren zergatia. Betea sentiaraziko zaituen norbaiten beharra.

Gurasoei sarritan entzuna da: "zure adina edukiko banu...". Batak bestea dauka behintzat.

Monika Belastegi



Nortzu datoz gero?

Astelehenean telebista ikusten nengoela, Espainiako bira hasia zela konturatu nintzen. Bertako irudiak ikustean, Marinoren irudia etorri zitzaidan burura.

Marinok, aurtan, txirrindularitza uztea zeukan pentsaturik, eta bere jarraitzaile guztiok uste genuen sekulako tenporadia egingo zuela bere afizioa dagoena baino pozago uzteko.

Baina hain sorte txarra izan du, ezingo duela denboraldi osoan ia lasterketarik korritu.

Oraindik badaude bai euskaldun txirrindulari oso onak (Etxabe, Leaniz, Cabestany, Indurain...), baina ez dut uste horitariko inork lortuko duenik nigan behintzat, Marinok sortu duen afizioa lortzea.

Baina guzti hauek urteetan aurrera doaz Indurain izan ezik, eta nork beteko du guzti hauen hutsunea?

Oraingoz uste dut txirrindulari gazte bat bakarrik dagoela hauen urratsak jarraitzeko moduan, Zarrabeitia gaztea.

Eta uste dut, Euskal Txapeldun berri baten jaiotzaren testigu izango garela txirrindularitzaren jarraitzaile guztiok. Aupa Zarrabeitia!!

Asier Arrieta

Taberna **kafetegia**

**EHIZTARIAK
LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, **BERGARA**



**SURPE
Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

**AFA - BI
Manufakturak, S. L.**
P.V.C. Aroztintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)

San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 **BERGARA**

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Erakusketa

Antonio Arrillaga

maiatzaren 4tik 31ra

NAHIKARI - n

Mahasterreka 20,
Tfnoa: 76 57 71
BERGARA

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

**Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak**

Martokua 32, tfnoa: 764594

LARREA

TABERNA

**Kale Barren 17
ANTZUOLA**



□ European zehar

Institutuko 3. mailako ikasleak ikas-bidaian izan genituen Aste Santuan. 11 egun igaro zituzten guztira Frantzia, Belgika eta Holandan zehar eta Paris, Brujas, Bruselas, Amsterdam... eta beste hainbat hiri zoragarritan primeran pasatu zutela adierazi digute. Hor dituzue, pozez gainezka; ez dakiguna da irteeran edota bueltan ateratako argazkia izango den...

□ Hori marka!

Domingo Zenitagoia eta Julita Basauri, 84 eta 80 urteko bergararrek, beraien ezkontzaren 60. urteurrena bete zuten astelehenean, maiatzak 4. Bezperan, seme-alaba eta familiakoekin egun berezi hori zelebratzeko bazkaria izan zuten, honelako ospakizunak maiz errepikatuzko itxaropenarekin. Zorionak ba, Domingo eta Julitari eta URTE ASKOTARAKO!!



□ **Reptilak**



Asteazkenetik ikusgai dago Seminarioan jarritako trail-erlean narrazti edo reptilen erakusketa mugikorra. Bertan, 50 espezie ingururen artean, Kobra real, Gaboneko bibora (munduko sugerik arriskutsuena), eskorpioiak, tarantulak

eta beste hainbat espezie interesgarri... eta beldurgarri aurki daitezke. Bertara hurbiltzen direnek **Rafael Gonzalez** biologo katalandarrarengandik espezie bakoitzaren datuak jaso ditzake. Erakusketa asteartera arte egongo da ikusgai.




□ **Elurra eta eguzkia**

Denetarako aukera izaten da Aste Santuan eta argazkiko hauek **Pol-Polarekin** urteko azken elurrak aprobetxatzeko **Avoriazera** (Frantzia) joan zitzazkigun. Bertaurreko, txamarra eta han hartutako morenoaren erruz antzematen ez den arren, bergararrak ditugu bai, eta fenomeno pasa dute Suiza eta Frantziako ski estaziotan. Bide batez, 10 egunetan, 40 bat lagunek denboraldiko azken *slalomak* egin dituzte. Elurrari agur!!

Zertan dihardute ba?

EZPELETA ETXEA



Orain 31 urte sortu eta hosteleritzarako mantelariaren fabrikazioan espezializaturiko enpresa bergarar honek EXPOko Euskadiko pabeloian dagoen jatetxeo manteleria egin du.

ASIER GARITANO



Bilboko Athleticaren bigarren mailako taldeko goletzailerik onena izan eta beste urtebeterako kontratua geratzen zaion arren, 22 urteko aurrelari bergararrak talde bilbotarra utziko du denboraldi amaieran.

CAMACHO
DROGERIA
USAINDEGIA
 Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

Atsedeen zentrua
LOKARTU
 Koltxoi-Denda
 Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

ETXAGI
Jatetxea
 Afariak - Bataioak
 Jaunartzeak
 Eguneko menua
 Gosariak - Bazkariak
 Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Umore giroan

Arraiñak, erosi zeuek nai dozuena


Bein batian jua zan Marino Maltzako erreka-
ra peskara. Ipiñi detsa
kañiari txitxaria, baiñan
arrañiak ez zebeñ amurik
jaten. Aldatu dau txitxaria,
bota dau barriz arixa,
eta bardiñ, uts oinguan
be. Eta ola denbora mor-
duan. Etzan jausten
arrañ bat bera be. Ordu-
an, aspertuta eta asa-
rratuta, botatzen dau
arrial bat erreka eta di-
ñotse

- Arraiñak, erosi ze-
uek nai dozuen txitxaria!

* * *

**Sapaburuak
ardauan**

Biar bada, ezta egixa
izango, baiña pasadizo
au be Marinoren "palma-
resian" ipintzen dabe.
Sartu ei zan tabernan



gure Marino, eta eskatu
zeban txikito bat. Etara
detse, eta gure pelotari-
xak, disimulu guztiakin,
bota ditxu basora sapa-
buru batzuk eta asi da ke-
jaka tabernarixari:

- I. eztagok deretxorik
au eitxeko! Sapaburuak
ardauan!

Tabernarixak estututa:

- Ixildu ari mesedez,
emongo deuat beste baso
bat duan. Ez eik esan iñun
zer pasau jan.

Eta bere andriari:

- Ori andra sistriflori!
Esaten jetsat ba nik ez
botatzeko erreka urik,
botatzeko txorroko ura,
baiñan alperrik!

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Irurixo

Behin edo behin, Berga-
rako Historiaurrearen inguru-
an gogoetak egin dituen edo-
norrek atera dezakeen ondo-
ria zera da: Historiaren hasi-
era hartako etapa gutxi isla-
datzen direla dakigunaren
arabera; izan ere, bakarrik
Menasta-aroko aztarnak (ba-
tez ere, trikuharri eta tumulo-
ak) aurki daitezke.

Zer dela eta galdetzer-
koan, eman daitezkeen arra-
zoiaren artean bi aipa daitezke:
bata herriak eskaintzen dituen
baliabideei dagokio; hau da,
herriko ingurua karstikoa ez
denez, ez da batere egokia
kobazuloak izateko. Badirudi
garai zahar haietako gizakiek
kobazuloak hobesten zituztela
bizitzeko; ondorioz, kobazu-
loen hezea ez zen erakarga-
rria suertatzen bizitzeko.
Bestea, lehenarekin loturik
dago; herriko inguruak hasie-
rako baldintza betetzen ez
duelako ez da sistematikoki
miatua izan. Ikerketa guztie-
tan etekinei garrantzi handia
ematen zaienez askotan al-

boratzen dira arrakastatsu
izan ez daitezkeen inguruak.
Hau izan daiteke Bergarako
kasua.

Hala ere, lehen arrazoia
ez da bete betean betetzen
zeren bait dugu kobazulo bat
Irurixo izenez ezagutzen de-
na.

Koba honen berri 1927an
jakin zuten T. Aranzadi eta J.
M. Barandiaranek. Garai har-
tan, lehen instantziako epailea
zen Fermín Garbayok, astia
izaten zuenean, gure herriko
inguruetan zenbait araketa
burutu omen zituen, horietako
batetan kobazuloaren berri
jakinez. Epaille hau izango da
berriemailea. Aranzadi eta
Barandiaranek, 1927ko uztai-
laren hamarrean jasotako gu-
tunean, Irurixo bisitatzeko
gonbitea jaso zuten. Hilabete
bereko 19an etorriko dira Ber-
garara kobazuloa arakatzen.
Miaketan leize-hartzaren az-
tarnak besterik ez zuten
aurkitu.

Xabier Larrañaga

**JUBILATUEN
TABERNA**

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

LAKET

Gizon Emakume
Barrenkale 35 Irala 2
BERGARA

GOIERRI
Autogidarien eskola

Fraiskozuri Eparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

□ Igeri ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak maiatzaren 14tik ekainaren 18ra bitartean 3 eta 4 urteko umeentzako igeri ikastaroak antolatatu ditu. Klaseak, 45 minutukoak, astean bi egunetan emango dira eta izena-emateak 6.000 pta. balio du.

□ Motorra

Larunbatean Herrigoin, Gernikan jokatutako Motor Igoeran bergararrak bikain aritu ziren; Angel Bideluze sailkapenean bigarren eta bere kategoriako (500 zm. kubiko) onena izan genuen. Ramon Ambroy laugarren eta bere kategorian (250 zm. kubiko) denborarik onena lortu zuena izan zen eta, azkenik, Alex Elizburu angiozartarra zortzigarren sailkatu zen bigarren txandan jausi ondoren.




Jaialdi arrakastatsua

Oxirondo Elkarteak ASPACEn alde larun baterako antolatutako pelota jaialdiak arrakasta ekonomiko eta deportiboa izan zuen. Guztira, 1.000 lagun inguru bildu ziren frontoian gazte, beterano eta afizionatu kategorietako pelota partidu bana ikusteko. Jaialdiko izarra Beloki napar gaztea bazen ere, kantxan izan ziren 6 pelotariak ikuskizun gailanta erakutsi zuten.

Jendeak, batipat, An-sola-Andueza eta Saman-niego-Tapia (18-15) bikoteen arteko partidua- rekin gozatu zuen. Belokik ere argi azaldu zuen profesionaletan jokatzeko izan dituen eskeintza milionarioen arrazoia, Lujanbiorekin, Lejardi-Balerdira 22 eta 21 irabaziz. Oxirondo Elkarteari plaka oroigarri bat eman zion ASPACEk, azken urteotan jaialdi honen antolaketa eskertuz.

Ruben Belokiren pronostikoa eskuzbanakako txapelketako kanporaketarako

Nik Arretxe inoiz baino hobeto ikusten dut baina, oraindik ere, Retegi ikusten dut irabazle. Egia da momentuan Retegiri irabazi diezaiokeen pelotari bakarra Arretxe dela baina neure pronostikoa erasundarraren aldekoa da; aurten txapela irabaziko du. Emaizta bat aurreratzekotan, 22 eta 16 Julianen alde.




Mongatxurra garaile

Mongatxurra taldeak irabazi du aurten futbitoko liga txapelketa, igandean jokatutako finalean Etxagi taldeari 4 eta 2ko emaitzarekin irabazi ondoren. Mongatxurra azkenaldian jokatutako 12 orduko bi txapelketatan bezala, berriz ere bere nagusitasuna azaldu eta garaipen berri bat lortu zuen. Oskar, Alberdi, Elorza I.a eta Cambronell Mongatxurraren alde, eta Izuskizak eta Bittorek Etxagirentzat lortu zituzten golak. Revienta taldeak 3. postua eskuratu zuen, penaltietan Bergarari irabaziz. Orain, koparen final laurdenak jokatzen hasiko dira.

Eros itzazu bizikletak.

URTE BETEKO GARANTIA!!

Urte hontan sorte ona opa diogu LOKATZA taldeari.



Ibargarai 45, Tfnoa: 76 41 63



Gorla elkarteko bazkide talde bat. 1.953

Berrogeitabost urte dira Gorla elkartea inauguratu zela. Orain dela 39 urte ateratako erretratu honetan bertako bazkide batzuk ageri dira.

Domeketan inguruak txukuntzera, sufarako egurra gertatzera, etab. etara joaten zen jendea duzue, erretratu polit hau ateratzeaz ere akordatu zirenak.

Hara zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

Aurrean: Faustino Lazkano, Xabier Lazkano, Mari Isabel Lazpiur, Juan Luis Bikuña eta Juan Antonio Fernandez.

Atzean: Honorio Agirregabiria, Imanol Zabaleta, Anjel Lazkano, Luis Bikuña, Bigen Aranzabal eta "Plaentxi" Abarrategi.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Carmen de Azkargorta*

SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Bi apartamentu alokatzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaez.

Garajea salgai Espalioan. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

6-8 urtekoentzako **Fondoko eski** pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, **Shimano Deore**-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gaez).

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak **teklista** bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabesiako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajeen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gaez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

3 pertsonarentzako iglu kanping-denda berria salgai. ☎ 76 34 95.

LANA

Neska batek **etxeko lanak** egin eta **umeak** zalinduko lituzke. ☎ 76 45 53.

B1, B2, C1, C2 eta D gidatzeko karneten jabe den mutil batek, transportista, anbulantzia gidari, e.a.-etako lanak egingo lituzke. ☎ 76 20 63.

Edozein motatako **lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako **lanak** egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Pertsona euskalduna behar dut **tabernako lanetarako.** ☎ 76 20 62.

Hildakoak

Maxima Igarzabal Unzurrunzaga
maiatzaren 3an, 88 urte
Ignacio Aristi Suinaga
maiatzaren 3an, 79 urte
Jose Maria Arriaran Iñarra
maiatzaren 6an, 56 urte

Jaiotakoak

Aitor Etxaniz Ortiz
apirilaren 27an
Miren Santa Cruz Kapanaga
apirilaren 29an
Lorea Larrañaga Igartua
maiatzaren 1ean
Asier Kortabarria Iparragirre
apirilaren 4ean

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

T
G A N B A R A

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75



B
E
R
N
A

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA